

# EUSKARAZKO ARGITALPENEI

## BURUZKO X. TXOSTENA

### (2014)



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

#### **Lankidetz:**

Euskadiko Editoreen Elkartea

Espainiako Editoreen Elkarten Federazioa

---

## **EDUKIEN AURKIBIDEA**

<b>Sarrera.....</b>	<b>6</b>
<b>Metodologia.....</b>	<b>7</b>
ARLOA.....	7
INFORMAZIOAREN BILKETA.....	7
ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA.....	7
AZALPENAK.....	8
AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA.....	9
<b>Argitalpen Sektorea, Oro Har.....</b>	<b>10</b>
<b>Argitalpen Pribatua Euskaraz.....</b>	<b>12</b>
ARGITALPEN PRODUKZIOA.....	12
Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta.....	15
Argitalpen produkzioa, sailen arabera.....	16
Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera.....	17
Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera.....	21
Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera.....	25
KATALOGOKO IZENBURUAK.....	27
Katalogoko izenburuak, sailen arabera.....	27
<b>Merkaturatzea.....</b>	<b>31</b>
2014KO FAKTURAZIOA.....	31
Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera.....	31
Fakturazioa sailez sail, jatorriaren arabera.....	33
LIBURUAK MERKATURATZEKO BIDEAK.....	36
Batez besteko salneurriak eta saldutako aleak.....	40
<b>Unibertsitatekoak ez diren Testuak, Euskaraz.....</b>	<b>42</b>
<b>Beste datu batzuk.....</b>	<b>51</b>
ENPLEGUA.....	51
EGILE ESKUBIDEAK.....	52
<b>Argitalpen Publikoa Euskaraz.....</b>	<b>53</b>
<b>Laburpena.....</b>	<b>55</b>
SAILEN ARABERAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIK.....	58
ZEHAZTAPEN METODOLOGIKOAK.....	61

## **TAULEN AURKIBIDEA**

1.	TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA.....	9
2.	TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK .....	10
3.	TAULA.- 2014KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK .....	11
4.	TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK.....	12
5.	TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA (2010-2014). 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	13
6.	TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK .....	14
7.	TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE. ....	15
8.	TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	17
9.	TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	20
10.	TAULA.- 2014AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK.....	21
11.	TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	24
12.	TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	25
13.	TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA.....	26
14.	TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK..	27
15.	TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	28
16.	TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO .....	30
17.	TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK .....	31
18.	TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2014AN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	31
19.	TAULA.- FAKTURAZIOA, SAILEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	34
20.	TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2014AN, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	36
21.	TAULA.- FAKTURAZIOA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013.....	38
22.	TAULA.- SALDUTAKO ALEAK. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA .....	40
23.	TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, SALDUTAKO ALEEN ETA FAKTURAZIOAREN ARTEKO.....	40
24.	TAULA.- EAE, NFE, IPAR EH ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN PARTE HARTZEA, HAINBAT MAGNITUDETAN.....	41
25.	TAULA.- 2014AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURUAK.....	42

26.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURUAK. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA.....	42
27.	TAULA.- 2014AN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO ALEAK (MILAKOTAN).....	43
28.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO ALEAK (X 1.000). 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA.....	44
29.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA 2014AN .....	45
30.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA. 2010-2014 BILAKAERA. ALDAKUNTZA 2013ARI DAGOKIONEZ.....	45
31.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURU BIZIAK 2014AN.....	46
32.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO IZENBURU BIZIAK 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA.....	47
33.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUEN EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2014AN.....	48
34.	TAULA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA.....	49
35.	TAULA. NOMINAPEKO LANGILEEN KOPURUA. ENPRESA PRIBATUAK.....	51
36.	TAULA.- ESKUBIDEAK EROSTEKO EGINDAKO ORDAINKETEN ESTIMAZIOA.....	52
37.	TAULA.- ERAKUNDE PUBLIKOEN ARGITALPENEN BALIOEN BANAKETA, SAILEN ARABERA.....	54
38.	TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK.....	55
39.	TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. % BERTIKALAK.....	55
40.	TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENAREN RATIO NAGUSIAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.....	56
41.	TAULA.- EUSKARAZKO LIBURUEN ARGITALPENAREN ETA FAKTURAZIOAREN DATU NAGUSIAK, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	57
42.	TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO IZENBURUEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK) <sup>8</sup> .....	58
43.	TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO ALEEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	59
44.	TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPEN BIZIEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKOEN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	59
45.	TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN NAHIZ FRANTZIAN LORTUTAKOAREN DATUEN ARTEKO KONPARAZIOA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	59
46.	TAULA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK SAILEN EHUNEKOAK, HAINBAT HIZKUNTZATAN, AZTERTUTAKO MAGNITUDEEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	60

---

## **GRAFIKOEN AURKIBIDEA**

1.	GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA.....	10
2.	GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA.....	15
3.	GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	19
4.	GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	23
5.	GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	29
6.	GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN).....	33
7.	GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. GUZTIRA ETA SAILEN ARABERA (2010-2014).....	35
8.	GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN).....	37
9.	GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. GUZTIRA ETA MERKATURATZE BIDEEN ARABERA (2010-2014).....	39
10.	GRAFIKOA.- UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOAREN BILAKAERA. OSOA ETA SAILEN ARABERA (2010-2014).....	50
11.	GRAFIKOA.- LORTUTAKO BALIOAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. (% BERTIKALAK).....	56
12.	GRAFIKOA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN TESTUAK SAILEN ARGITALPENA ETA FAKTURAZIOA, AZTERTUTAKO HIZKUNTZETAN (%-TAN).....	60

---

## **SARRERA**

Euskarazko argitalpenei buruzko hamargarren txostena, 2014. urteari dagokiona, egin du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak. Txosten hori Euskadiko Editoreen Elkartearen laguntzarekin egin da.

Txosten hau prestatzeko azterketak euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datu guztiak jasotzen ditu, liburu horiek argitara eman diren lekuak edozein direla ere. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Frantziako estatuko (Ipar Euskal Herriko) produkzioak biltzen ditu. Horrez gainera, badira hainbat argitaletxe egoitza lurralde horietatik kanpo duten arren euskarazko lanak argitaratzen dituztenak, eta horiek ere kontuan hartzen ditu.

Bestalde, euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten Administrazio Publikoko erakundeen eta haren mendeko entitateen datuak ere jasoak datoz azterketan.

Azkenik, aurrean ere, esker ona adierazi nahi diegu eman diguten laguntzagatik Euskadiko Editoreen Elkarteari, Conecta enpresak bidalitako galdeketari erantzun dioten enpresei eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioari, horiei esker egin ahal izan baitugu ikerlan hau.

---

## METODOLOGIA

### ARLOA

Ikerketa honen azterketa eremua euskarazko liburuaren argitalpena da, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkartearen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategorian honen barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko argitaletxeak (Ipar EH).
- Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeak (Beste AE batzuk).
- Erakunde publikoak (EP).

Horiek guztiak 2014. urtean argitalpenaren eremuko barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

### INFORMAZIOAREN BILKETA

Azterlanean islatuta dagoen informazioa zenbait iturritatik jaso dugu:

- Euskadiko enpresa pribatuak. Horiei buruzko informazioa 2014ko Euskal Autonomia Erkidegoko Edizioaren XX. txostenean bilduta dago jadanik.
- Euskal Herritik kanpoko argitalpen enpresa pribatuek betetako galdetegi egituratu bat, posta elektronikoz igorria.
- Erakunde publikoari buruzko informazioa eta euskarazko argitalpeni buruzko beste zifra batzuk jaso dira telefono bidezko inkestean eta ISBN datu-basearen bidez.

### ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA

Txosten honetan, hasteko, euskarazko argitalpeni buruzko datu orokorrak emango ditugu jakitera: eragile editoreei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak. Ondoren, argitalpen pribatuari buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu (Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako autonomia erkidegoak kontuan hartuta). Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Liburuaren Barne Merkataritzari buruzko txostenean dago jasota, baina informazio horri erantsi dizkiogu Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako autonomia erkidegoetako argitaletxe pribatuenak.

---

Ondoren, erakunde publikoen argitalpenei buruzko informazioa eskainiko dugu. Dena dela, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Merkataritzaren urteko txostenaren barruan Euskal Herriko unibertsitate publikoak ere sartzen direla, eta, beraz, horiei buruzko datuak ez direla argitalpen publikoari buruzko atalean sartuko, argitalpen pribatuaren atalean baizik.

## **AZALPENAK**

Azterketan, euskaraz argitaratutako lanetarako buruzko galderak egin ditugu.

Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanetarako kopuruaren eta ISBNen (ISBN datu-basea edo Liburuaren Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2014an erregistratutako liburuaren kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure iritziz: berrargitaratutako lanak dira, editoreak berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenak eta horientzat, zenbait kasutan, ez da ISBN zenbaki berririk eskatu.



## AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA

**Lanaren egilea:** CONECTA Research & Consulting.

**Unibertsoa:** ISBNko datuen arabera, 2014. urtean 102 argitaletzek argitaratu zituzten lanak euskaraz. Ipar Euskal Herriko 6 argitaletxe gehitu behar zaizkie horiei.

**Laginaren tamaina:** EAEko 43 argitaletxe pribatuk erantzun diote galdeketari, hau da, laginaren % 69,4k. Gainerako autonomia erkidegoetatik lortutako erantzunari dagokionez, argitaletxeen % 28,6k erantzun dio galdeketari, eta horien barnean daude euskarazko izenburu gehien dituztenak. Horien garrantzia kontuan hartuta, erantzun maila talde horren euskarazko fakturazioaren erakusgarria dela iruditzen zaigu.

Guztira, argitaletxe pribatuen % 61,1ek eta erakunde publikoen % 30,8k erantzun dute. Galdeketari erantzun ez dioten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako datuetatik jaso dugu.

### I. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA

	Unibertsoa	Lagina	Laginaren %
EAE	62	43	69,4
NFE	6	3	50,0
Ipar EH	6	6	100,0
Beste AE batzuk	21	6	28,6
<b>Argitaletxe pribatuak, guztira</b>	<b>95</b>	<b>58</b>	<b>61,1</b>
<b>EP</b>	<b>13</b>	<b>4</b>	<b>30,8</b>
<b>Guztira</b>	<b>108</b>	<b>62</b>	<b>57,4</b>

**Galdeketa mota:** egituratua.

**Aplikazioa:** norberak betea.

**Landa lanerako datak:** 2015eko irailetik urrira bitarte, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuei, argitaletxe publikoei eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeei dagokienez. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak 2015eko martxoaren 4tik irailaren 15era bitartean lortu genituen.


**Datuak taulan jartzea:** datuak Conecta Research & Consulting enpresan grabatu dira, eta taulan jarri.

## ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

Espanian eta Frantzian, 108 enpresak argitaratu zuten lanen bat euskaraz 2014. urtean. Enpresa horien tipologia eta kokapen geografikoa kontuan hartuta, honela banatzen dira:

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan<sup>1</sup> (EAE) duten 62 argitaletxe pribatu (Euskadiko Barne Merkataritzari buruzko ikerketaren bitartez aztertu direnak). Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartean bildutako argitaletxeak nahiz, horren barruan egon ez arren, 2014. urtean argitalpen sektorean jardun zuten erkidego horretako argitaletxeak.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 6 argitaletxe pribatu.
- Ipar Euskal Herriko probintzietako (Frantzia) 6 argitaletxe pribatu.
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean duten 21 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 13 erakunde publiko (EP). Horiek izendatzeko argitaletxe eragile hitza erabiltzea komeni da, oro har, erakunde horien jarduera nagusia ez baita argitalpena.

### I. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA



### 2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK

	Argitaletxe pribatuak					EP	% bertikalak, guztira
	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk		
EAE	73	62	0	0	0	11	67,6
NFE	7	2	4	0	0	1	6,5
Ipar EH	6	0	0	6	0	0	5,6
Kataluniako AE	6	0	0	0	6	0	5,6
Madrilgo AE	10	0	0	0	9	1	9,3
Beste AE batzuk	6	0	0	0	6	0	5,6
<b>Guztira</b>	<b>108</b>	<b>64</b>	<b>4</b>	<b>6</b>	<b>21</b>	<b>13</b>	<b>100,0</b>
% horizontalak	100,0	59,3	3,7	5,6	19,4	12,0	

<sup>1</sup> Nafarroan bi dira Euskadiko Editoreen Elkartera bildutako argitaletxeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Edizioaren txostenean daude jasota haien datuak. Era berean, hezkuntza erakunde publiko baten datuak daude jasota hartan.

Hurrengo taulan, zehatzago agertzen dira euskaraz argitaratzen duten mota bakoitzeko argitaletxeak. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izenburu kopuru gehiena dutenak. Egileen eta editoreen datuak ere agertzen dira. informazio gisa (ez zaizkio emaitza osoari gehitu).

### 3. TAULA.- 2014KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Editore mota	Probintzia	Eragileak	Izenburuak, guztira	Izenburu gehien dituzten argitaletxeak
Guztira		136	1.882	
<b>Egileak/editoreak, guztira</b>		<b>28</b>	<b>31</b>	
	<b>Gipuzkoa</b>	18	20	
	<b>Bizkaia</b>	5	6	
	<b>Nafarroa</b>	5	5	
<b>Pribatua, guztira</b>		<b>89</b>	<b>1.734</b>	
<b>EAE<sup>2</sup></b>		<b>62</b>	<b>1.344</b>	
<b>Argitaletxe pribatua</b>	<b>Araba</b>	4	38	
	<b>Gipuzkoa</b>	28	651	
	<b>Bizkaia</b>	30	655	
	<b>Nafarroa</b>	6	57	<b>Pamiela</b>
				<b>Txalaparta Argitaletxea</b>
				<b>Igela Argitaletxea</b>
				<b>Cenlit</b>
	<b>Bartzelona</b>	6	26	<b>Planeta</b>
				<b>Vicens Vives</b>
	<b>Madril</b>	9	264	<b>Anaya</b>
				<b>Susaeta</b>
				<b>Bruño</b>
	<b>Pontevedra</b>	1	9	
	<b>Badajoz</b>	1	24	
<b>Valentzia</b>	1	2		
<b>Beste batzuk</b>	3	8		
<b>Publikoa, guztira</b>		<b>13</b>	<b>90</b>	
<b>Hezkuntza erakunde publikoak</b>		<b>2</b>	<b>27</b>	
	<b>Bizkaia</b>	2	27	<b>Euskal Herriko Unibertsitatea</b>
<b>Estatuko autonomia eta tokiko administrazioaren erakunde ofizialak</b>		<b>11</b>	<b>63</b>	
	<b>Araba</b>	2	21	<b>Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritzako</b>
	<b>Gipuzkoa</b>	6	6	
	<b>Bizkaia</b>	1	33	<b>Bizkaiko Foru Aldundia</b>
	<b>Nafarroa</b>	1	2	
	<b>Madril</b>	1	1	
<b>Ipar Euskal Herria</b>		<b>6</b>	<b>27</b>	

<sup>2</sup> EAEko argitaletxe pribatuen 1.344 izenburuei honako hauek gehitu egin behar zaizkie horien datuak EAEko edizioaren azterlanean daudelako: Nafarroako 2 argitaletxeren 39 izenburu eta Hezkuntza Publikoko 2 Erakunderen 27 izenburu. Horrenbestez batzen dira txosten honetan hemendik aurrera aipatuko ditugun EAEko **1.410 izenburuak**.

Nafarroak 57 ken 39 izenburu lituzke = **18 izenburu**.

Edizio Publikoaren guztizkoa 90 litzateke ken Hezkuntza Publikoko Erakundeen 27 = **63 izenburu**.

# ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ

## ARGITALPEN PRODUKZIOA

2014. urtean, argitaletxe pribatuek (Euskadin nahiz beste Autonomia Erkidego batzuetan eta Ipar Euskal Herrian) 1.787 izenburu<sup>3</sup> argitaratu zituzten euskaraz, hau da, aurreko ekitaldian baino % 3,4 gehiago. Argitaratutako izenburuen % 78,9 EAeko argitaletxe pribatuek argitaratu zituzten; % 1,0 Nafarroako Foru Erkidegokoek; % 1,5, Ipar Euskal Herrikoek, eta % 18,6, beste autonomia erkidego batzuetakoek.

2013. urtearekin alderatuta, Iparraldean izenburu kopuru berdina argitaratu da, baina EAE, eta NFE<sup>4</sup> % 4,7 eta % 24,6 gehiago argitaratu da hurrenez hurren, beste autonomia erkidegoetan % 2,3 gutxiago argitaratu bada ere.

Gutxi gorabehera 2,94 milioi ale argitaratu dira 2014an, 2013an baino % 4,1 gehiago. Ale horietatik % 90,6 EAeko argitaletxe pribatuek argitaratu zituzten, % 0,4 NFEko argitaletxeek, % 0,9 Ipar EHko argitaletxeek eta % 8,0 beste autonomia erkidegoetako argitaletxeek.

Hortaz, izenburu bakoitzeko aleen batez besteko argitaraldia 1.643koa izan zen, EAeko argitaletxe pribatuen batez bestekoa handiagoa izan zela (1.888 ale). Kopuru osoarekiko batez besteko argitaraldia 2013koaren antzekoa da, izan ere, aleen argitaraldiaren hazkundera izenburuenaren antzekoa izan da eta, eta beraz eutsi egin zaio batez besteko argitaraldiari. Soilik EAEn egin du gora argitaraldiak. Gainerako autonomia erkidegoetan behera egin du.

Taula hauetan, euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak daude adierazita, baita argitaratutako izenburuek, argitaratutako aleek eta batez besteko argitaraldiak azken 5 urteetan izandako bilakaera ere.

#### 4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK

	Argitaratutako izenburuak	%	Argitaratutako aleak	%	Batez besteko argitaraldia
<b>Guztira</b>	<b>1.787</b>	<b>100,0</b>	<b>2.936.816</b>	<b>100,0</b>	<b>1.643</b>
<b>EAE</b>	1.410	78,9	2.661.569	90,6	1.888
<b>NFE</b>	18	1,0	12.308	0,4	691
<b>Ipar EH</b>	27	1,5	27.500	0,9	1.019
<b>Beste AE batzuk</b>	333	18,6	235.439	8,0	707

<sup>3</sup> Euskal Herriko Unibertsitatearenak barne.

<sup>4</sup> NFEko bi argitaletxeren datuak EAeko datuen artean daude bi argitaletxe horiek Euskadiko Editoreen Elkartearen daudelako.

**5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA (2010-2014). 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

	Argitaratutako izenburuak					
	2010	2011	2012	2013	2014	Aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>1.879</b>	<b>1.895</b>	<b>1.854</b>	<b>1.728</b>	<b>1.787</b>	<b>3,4</b>
<b>EAE</b>	1.476	1.486	1.463	1.346	<b>1.410</b>	4,7
<b>CFN</b>	18	20	16	14	<b>18</b>	24,6
<b>Ipar EH</b>	29	27	26	27	<b>27</b>	0,0
<b>Beste AE batzuk</b>	356	362	349	341	<b>333</b>	-2,3

	Argitaratutako aleak (x 1.000)					
	2010	2011	2012	2013	2014	Aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>3.601</b>	<b>3.351</b>	<b>3.272</b>	<b>2.821</b>	<b>2.937</b>	<b>4,1</b>
<b>EAE</b>	3.176	3.046	2.969	2.546	<b>2.662</b>	4,5
<b>CFN</b>	20	11	10	11	<b>12</b>	10,4
<b>Ipar EH</b>	33	30	27	28	<b>28</b>	-1,9
<b>Beste AE batzuk</b>	373	265	266	236	<b>235</b>	-0,1

	Batez besteko argitaraldia					
	2010	2011	2012	2013	2014	Aldakuntza*
<b>Guztira</b>	<b>1.916</b>	<b>1.769</b>	<b>1.764</b>	<b>1.633</b>	<b>1.643</b>	<b>11</b>
<b>EAE</b>	2.152	2.050	2.028	1.892	<b>1.888</b>	-4
<b>CFN</b>	1.119	556	637	781	<b>691</b>	-89
<b>Ipar EH</b>	1.107	1.107	1.051	1.038	<b>1.019</b>	-19
<b>Beste AE batzuk</b>	1.047	732	761	691	<b>707</b>	16

\*Ale kopurutan

---

## Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tartearak

2014an euskaraz argitaratu zuten argitaletxe pribatu guztien (108 argitaletxe) % 69,4k 1-9 izenburu argitaratu zituen euskaraz. 35 argitaletxek (% 32,4) soilik izenburu I argitaratu zuen euskaraz 2014an, 27 argitaletxek (% 25,0) 2-4 izenburu euskaraz eta beste 13 enpresa argitaratzailek (% 12,0) 5-9 izenburu euskaraz.

Argitaletxeen % 30,6k 10 izenburu edo gehiago argitaratu ditu euskaraz. Argitaratutako izenburuen % 51,5 Euskal Autonomia Erkidegoan editatu dira.

### 6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

	Guztira (%)	Guztira: Argitaletxe kop.	Argitaletxe pribatuak				Argitaletxe publikoak
			EAE <sup>5</sup>	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk	
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>108</b>	<b>62</b>	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>21</b>	<b>13</b>
I izenburu	32,4	35	16	1	0	11	7
2-4 izenburu	25,0	27	22	1	0	2	2
5-9 izenburu	12,0	13	7	2	0	3	1
10-49 izenburu	21,3	23	9	2	6	3	3
50 izenburu edo gehiago	9,3	10	8	0	0	2	0

---

<sup>5</sup> Gogoratu EAEn barruan hezkuntza publikoaren arloko erakunde bat dagoela.

## Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta

89 argitaletxe pribatuetatik 26k (ez dira kontuan hartzen Ipar Euskal Herrikoak) euskaraz argitaratzen dituzte beren izenburuetatik % 75 baino gehiago. Argitaletxe horietatik 25 EAEn daude, bakarra da NFEkoa. Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxeak dira euskaraz argitaratzen duten editore nagusiak.

7 argitaletxe pribatuk euskaraz argitaratzen dute beren produkzioaren % 50 eta % 75 bitartean (5 dira EAekoak eta 2 NFEkoak). 13 argitaletxek euskaraz argitaratzen dute beren produkzioaren % 25 eta % 49 bitartean (11 dira EAekoak eta 2 NFEkoak), eta 43 argitaletxe pribatuk beren produkzioaren % 25 baino gutxiago argitaratzen dute euskaraz (21 dira EAekoak, 1 NFEkoa eta 21 beste autonomia erkidegoetakoak).


13 erakunde publikoetatik 8k euskaraz argitaratu zuten beren izenburuen % 75etik gora.

### 7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE.

Argitaletxe kopurua	Guztira (%)	Guztizko orokorra	Argitaletxe pribatuak*				EP
			Pribatuak, guztira	EAE	NFE	Beste AE batzuk	
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>102</b>	<b>89</b>	<b>62</b>	<b>6</b>	<b>21</b>	<b>13</b>
% 25 baino gutxiago	<b>43,1</b>	<b>44</b>	43	21	1	21	1
% 25 - % 49	<b>13,7</b>	<b>14</b>	13	11	2	0	1
% 50 - % 75	<b>9,8</b>	<b>10</b>	7	5	2	0	3
% 75 baino gehiago	<b>33,3</b>	<b>34</b>	26	25	1	0	8

\* Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe

### 2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA



---

## Argitalpen produkzioa, sailen arabera

Atal honetan, euskarazko argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu (argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak), sailen arabera.

Honako hauek dira sail bakoitzaren edukiak:

- Literatura: eleberria, poesia eta antzerkia, beste literatura batzuk.
- Haur eta gazte literatura: haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- Unibertsitatekoak ez diren testuak: epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta Liburuak nahiz material osagarriak.
- Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak: zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorrotzasun mailaren arabera, eta norentzat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
- Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak: hainbat diziplina biltzen ditu, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia, besteak beste.
- Liburu praktikoak: etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaiaria gidak, mapak, etab.
- Dibulgazioa orokorra: sail honetan sartzen dira Dibulgazioko beste liburu batzuk saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
- Hiztegiak eta entziklopediak: ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoaren diseinua errazteko:

- Testu zientifikoak eta gizarte zientziei buruzkoak: Testu zientifikoak eta teknikoak eta unibertsitate testuak saila eta Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak saila elkartu ditugu.
- Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak: Liburu praktikoak eta dibulgazio orokorra sailak barne hartzen ditu.
- Beste sail batzuk: Komikiak, hiztegiak eta entziklopediak eta bestelakoak sailak elkartu ditugu.



## Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera

Argitaletxe pribatuek 1.787 izenburu argitaratu dituzte euskaraz 2014. urtean, horietatik % 78,9 (1.410 izenburu) EAEn. Izenburuen % 1,0 (18 izenburu) NFEen argitaratu ziren, % 1,5 (27 izenburu) Ipar Euskal Herrian, eta % 18,6 (333 izenburu euskaraz) beste autonomia erkidego batzuetan.

Unibertsitatekoak ez diren testu liburuak dira, berriro ere, argitaletxe pribatuek euskaraz argitaratutako izenburuen ehuneko handiena hartzen dutenak (% 45,1). Ondoren haur eta gazte literatura dator, % 27,1 kopuruarekin. Bi sailek hizkuntza honetan argitaratzen diren izenburen % 72,2 hartzen dute.

Sail hauetarako (Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta gazte literatura), eta Autonomia Erkidegoen artean konparatuz gero, izenburuen kontzentrazio handiena Beste Autonomia Erkidego batzuk sailean dago; batuz gero, izenburuen % 97,6 dira.

### 8. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK


	Guztira	EAE	NFE*	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	<b>1.787</b>	<b>1.410</b>	<b>18</b>	<b>27</b>	<b>333</b>
Literatura	229	211	7	11	--
<i>Eleberria</i>	149	138	6	5	--
<i>Poesia, antzerkia</i>	21	19	--	3	--
<i>Beste literatura batzuk</i>	58	55	--	4	--
Haur eta gazte literatura	484	368	4	9	102
Unibertsitatekoak ez diren testuak	807	581	3	--	223
<i>Haur Hezkuntza</i>	110	110	--	--	--
<i>Lehen Hezkuntza</i>	320	228	--	--	92
<i>DBH</i>	262	167	--	--	94
<i>Batxilergoa</i>	37	8	--	--	29
<i>Lanbide Heziketa</i>	2	1	--	--	1
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	76	67	3	--	6
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	146	143	--	--	3
Liburu praktikoak eta dibulgazioak	60	47	4	7	2
Beste sail batzuk	62	59	--	--	3

\* NFEko bi argitaletxeren datuak EAEko datuetan sartuta daude.

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (% bertikalak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Literatura	12,8	15,0	36,5	40,7	--
<i>Eleberria</i>	8,4	9,8	34,8	18,5	--
<i>Poesia, antzerkia</i>	1,2	1,3	0,6	9,3	--
<i>Beste literatura batzuk</i>	3,3	3,9	1,1	13,0	--
Haur eta gazte literatura	27,1	26,1	24,2	33,3	30,7
Unibertsitatekoak ez diren testuak	45,1	41,2	16,9	--	66,9
<i>Haur Hezkuntza</i>	6,1	7,8	--	--	--
<i>Lehen Hezkuntza</i>	17,9	16,2	--	--	27,6
<i>DBH</i>	14,6	11,9	--	--	28,3
<i>Batzilergoa</i>	2,1	0,6	--	--	8,7
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,1	0,1	--	--	0,3
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	4,3	4,7	16,9	--	1,9
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	8,2	10,1	--	--	0,9
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	3,4	3,3	22,5	25,9	0,7
Beste sail batzuk	3,4	4,2	--	--	0,8

Literatura da hirugarren sail garrantzitsuen (Unibertsitatekoak ez diren testuak eta Haur eta gazte literatura sailen ondoren), argitaratu diren izenburuen % 12,8 baitira.

Literatura sailean argitaratutako izenburuen % 65,3 eleberriak izan ziren; % 9,2, poesia eta antzerkia, eta % 25,4, beste literatura batzuk.




2014an, euskaraz argitaratu emandako izenburuen % 78,9 EAEko argitaletxe pribatuek plazaratu zuten. EAEko argitaletxeek argitaratutako izenburuek gaintitu egiten dute Literatura, Testu Zientifikoak eta Gizarte Zientziei buruzko testuen gutzizkoan lortutako batez bestekoaren ehuneko hori (% 92,4, % 98,0 eta % 95,7 hurrenez hurren).

Beste autonomia erkidegoetako argitaletxeek, argitaratutako izenburuen gutzizkoaren % 18,6 hartzen baitute, % 27,6 hartzen dute Unibertsitatekoak ez diren testuetan eta % 21,1 Haur eta Gazte literaturan.

### 3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	78,9	1,0	1,5	18,6



Aurreko ekitaldiaren aldean, % 3,4 igo da argitaratutako izenburuen kopurua. 2014an, eta sailen arabera, soilik Haur eta Gazte Literatura sailean egin du behera izenburuen kopuruak (% 8,0tik behera). Ekitaldi horretan gora egin du Literatura saileko izenburuen kopuruak (% 13,0), Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 2,7), testu Zientifikoak eta Gizarte Zientziei buruzkoak (% 33,4), Liburu praktikoak eta Dibulgaziozkoak (% 15,1) eta Beste sail batzuek (% 19,0).

**9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

Argitaratutako izenburuak	2010	2011	2012	2013	2014	Aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>1.879</b>	<b>1.895</b>	<b>1.854</b>	<b>1.728</b>	<b>1.787</b>	<b>3,4</b>
Literatura	278	251	250	202	<b>229</b>	<b>13,0</b>
Haur eta gazte literatura	532	534	489	526	<b>484</b>	<b>-8,0</b>
Unibertsitatekoak ez diren testuak	834	896	885	786	<b>807</b>	<b>2,7</b>
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	62	82	112	109	<b>146</b>	<b>33,4</b>
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	112	39	39	52	<b>60</b>	<b>15,1</b>
Beste sail batzuk	61	92	80	52	<b>62</b>	<b>19,0</b>

% bertikalak	2010	2011	2012	2013	2014	Aldea*
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Literatura	14,8	13,2	13,5	11,7	<b>12,8</b>	<b>1,1</b>
Haur eta gazte literatura	28,3	28,2	26,4	30,4	<b>27,1</b>	<b>-3,4</b>
Unibertsitatekoak ez diren testuak	44,4	47,3	47,7	45,5	<b>45,1</b>	<b>-0,3</b>
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	3,3	4,3	6,0	6,3	<b>8,2</b>	<b>1,8</b>
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	6,0	2,0	2,1	3,0	<b>3,4</b>	<b>0,3</b>
Beste sail batzuk	3,3	4,9	4,3	3,0	<b>3,4</b>	<b>0,5</b>

\*Aldea ehunekotan

## Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera

Argialetxe pribatuek 2.936.816 ale argitaratu dituzte euskaraz 2014. urtean. Horietatik % 90,6 Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratu dira, % 0,4 Nafarroako Foru Erkidegoan, % 1,0 Ipar Euskal Herrian eta % 8,0 beste autonomia erkidego batzuetan.

Unibertsitatekoak ez diren testuak saila da euskaraz ekoiztutako aleen guztizkoaren % 56,1 hartzen duena. Ondoren dator Haur eta Gazte literatura saila, guztizkoaren % 23,8arekin. Biak batuta euskaraz argitaratutako aleen guztizkoaren % 79,9 hartzen dute. Bi sail horien batura jatorri desberdinekin alderatuz gero, esan dezagun beste autonomia erkidego batzuk direla aleak ekoizten bigarrenak; batzuk zein besteak batera hartuta, argitaratutako aleen guztizkoaren % 97,4 hartzen dute.


### 10. TAULA.- 2014AN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGIALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (balio absolutuak) (x1.000)</b>	<b>2.937</b>	<b>2.662</b>	<b>12</b>	<b>28</b>	<b>235</b>
Literatura	301	291	5	6	0
<i>Eleberria</i>	198	192	4	2	0
<i>Poesia, antzerkia</i>	19	17	1	1	0
<i>Beste literatura batzuk</i>	85	81	0	3	0
Haur eta gazte literatura	698	593	4	17	85
Unibertsitatekoak ez diren testuak	1.646	1.499	3	0	144
<i>Haur Hezkuntza</i>	292	292	0	0	0
<i>Lehen Hezkuntza</i>	711	636	0	0	75
<i>DBH</i>	435	384	0	0	51
<i>Batxilergoa</i>	36	17	0	0	19
<i>Lanbide Heziketa</i>	2	1	0	0	1
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	180	170	3	0	8
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	115	113	0	0	2
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	95	88	1	5	1
Beste sail batzuk	81	78	0	0	3

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (% bertikalak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Literatura	10,3	10,9	38,3	21,0	0,0
<i>Eleberria</i>	6,7	7,2	30,2	7,0	0,0
<i>Poesia, antzerkia</i>	0,6	0,7	5,1	3,0	0,0
<i>Beste literatura batzuk</i>	2,9	3,1	3,0	11,0	0,0
Haur eta gazte literatura	23,8	22,3	29,5	60,0	36,0
Unibertsitatekoak ez diren testuak	56,1	56,3	23,3	0,0	61,4
<i>Haur Hezkuntza</i>	9,9	11,0	0,0	0,0	0,0
<i>Lehen Hezkuntza</i>	24,2	23,9	0,0	0,0	31,8
<i>DBH.</i>	14,8	14,4	0,0	0,0	21,7
<i>Batzilergoa</i>	1,2	0,6	0,0	0,0	8,1
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,1	0,0	0,0	0,0	0,4
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	6,1	6,4	23,3	0,0	3,2
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	3,9	4,2	0,0	0,0	1,0
Liburu praktikoak eta dibulgazioak	3,2	3,3	8,9	19,0	0,4
Beste sail batzuk	2,7	2,9	0,0	0,0	1,2

Unibertsitatekoak ez diren testuez eta Haur eta Gazte literaturaz gain, Literatura da beste sail garrantzitsu bat, 2014an guztizkoaren % 10,3 hartu baitu.

Literatura sailean eta euskaraz argitaratutako lanen % 65,6 eleberriak izan ziren; % 6,3, Poesia eta antzerkia, eta % 28,1, Beste literatura batzuk.




Argitaratutako aleen % 90,6 EAEko enpresek argitaratu dute. Haur eta Gazte literatura saila (EAEen argitaratutako % 85,0) alde batera utzirik, EAEko gainerako enpresek zenbateko osorako aldez aurretik aipatu den euskarazko aleen ehunekoa gainditzen dute.

Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeek, ale guztien % 8,0 argitaratu zutenak, ehuneko hori gainditu zuten Haur eta Gazte literatura (% 12,1) eta Unibertsitatekoak ez diren testuak (% 8,8) sailetan.

**4. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEAK, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	90,6	0,4	0,9	8,0



Aurreko ekitaldiari dagokionez, euskaraz argitaratutako aleen kopurua % 4,1 handitu da. Balio absolutuen arabera, argitaratutako aleen kopuruak gora egin du aintzat hartutako sail guztietan. Aurreko ekitaldiarekiko igoera hori Haur eta Gazte literaturaren, Testu zientifikoak eta gizarte zientzietako eta Beste sail batzuen batez bestekoa baino handiagoa da.

Aleen % 56,1 Unibertsitatekoak ez diren testuak izan dira. Aurreko ekitaldiaren aldean, sail horrek gutxiago hartzen du argitaratutako izenburuen guttizkoan (ehuneko 2,2 puntu gutxiago), baina gehiago hartzen dute Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak (ehuneko 1,4 puntu gehiago), Haur eta Gazte Literaturako testuak (+ 0,5) eta beste sail batzuek (+ 0,5).

## II. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA

Argitaratutako aleak (x1.000)	2010	2011	2012	2013	2014	Aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>3.601</b>	<b>3.351</b>	<b>3.272</b>	<b>2.821</b>	<b>2.937</b>	<b>4,1</b>
Literatura	294	332	328	295	<b>301</b>	2,1
Haur eta gazte literatura	949	849	743	657	<b>698</b>	6,3
Unibertsitatekoak ez diren testuak	2.064	1.915	1.956	1.643	<b>1.646</b>	0,2
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	56	79	85	70	<b>115</b>	63,5
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	143	76	64	92	<b>95</b>	3,6
Beste sail batzuk	96	100	96	64	<b>81</b>	26,5

% bertikalak	2010	2011	2012	2013	2014	Aldea*
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Literatura	8,2	9,9	10,0	10,5	<b>10,3</b>	-0,2
Haur eta gazte literatura	26,4	25,3	22,7	23,3	<b>23,8</b>	0,5
Unibertsitatekoak ez diren testuak	57,3	57,2	59,8	58,2	<b>56,1</b>	-2,2
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1,5	2,4	2,6	2,5	<b>3,9</b>	1,4
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	4,0	2,3	2,0	3,3	<b>3,2</b>	0,0
Beste sail batzuk	2,7	3,0	2,9	2,3	<b>2,7</b>	0,5

\*Aldea ehunekotan



## Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera

Batez besteko euskarazko argitaraldia izenburuko 1.643 alekoa izan zen 2014an. Lurraldean arabera, honakoa izan zen batez besteko argitaraldia: 1.888 alekoa Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuetan, 691 alekoa Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuetan, 1.019 alekoa Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan eta 707koa beste autonomia erkidegoetako argitaletxeetan.

Argitaraldi handiena Unibertsitatekoak ez diren testuentzat da (2.040 ale izenburuko), izenburuen % 45,1 hartzen dute eta aleen % 56,1. Liburu praktikoak eta Dibulgaziozkoen sailaren batez besteko argitaraldia ere aipagarria da (1.580 ale izenburuko), baina soilik izenburuen % 3,4 eta aleen % 3,2 hartzen dute. Azkenik, Haur eta Gazte literatura sailak ere argitaraldien batez besteko orokorra baino argitaraldi handiagoa izan du (1.443 ale), izenburuen % 27,1 eta aleen % 23,8 hartuta.

### 12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Batez besteko argitaraldia</b>	<b>1.643</b>	<b>1.888</b>	<b>691</b>	<b>1.019</b>	<b>707</b>
Literatura	1.317	1.377	726	525	-
<i>Eleberria</i>	1.323	1.390	600	385	-
<i>Poesia, antzerkia</i>	893	940	6.250	330	-
<i>Beste literatura batzuk</i>	1.456	1.493	1.860	864	-
Haur eta gazte literatura	1.443	1.611	843	1.833	830
Unibertsitatekoak ez diren testuak	2.040	2.579	955	-	649
<i>Haur Hezkuntza</i>	2.656	2.659	-	-	367
<i>Lehen Hezkuntza</i>	2.221	2.788	-	-	814
<i>DBH</i>	1.663	2.295	-	-	541
<i>Batxilergoa</i>	957	2.041	-	-	652
<i>Lanbide Heziketa</i>	822	800	-	-	843
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	2.363	2.537	955	-	1.198
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	787	787	-	-	796
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	1.580	1.878	275	746	408
Beste sail batzuk	1.313	1.325	-	-	1.036

Ondoko taula honetan azken bost urteetako batez besteko argitaraldien bilakaeraren datuak eskaintzen dira.

Eten egin da azken urteetako beheranzko joera, 2014an baino 11 izenburu gehiago argitaratu baitira batez beste, baina 2010ean baino 273 izenburu gutxiago.

Sailen arabera eta aurreko urtearekin alderatuta, Haur eta Gazte literaturak izan du igoerarik handiena (194 ale gehiago izenburuko), ondotik etorri dira Testu Zientifikoak eta Gizarte Zientzietakoak (145 ale gehiago izenburuko).

Azken 5 urteetan Literaturaren batez besteko argitaraldiak gora egin du 259 aletan, eta Liburu praktikoak eta Dibulgaziozkoak sailarenak 308 aletan. Gainerako sailek murriztu egin dute beren batez besteko argitaraldia 2010. urtearekin alderatuz gero.

### 13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA

	2010	2011	2012	2013	2014	Aldea
<b>Guztira</b>	<b>1.916</b>	<b>1.769</b>	<b>1.764</b>	<b>1.633</b>	<b>1.643</b>	<b>11</b>
Literatura	1.058	1.322	1.310	1.458	<b>1.317</b>	<b>-141</b>
Haur eta gazte literatura	1.784	1.589	1.519	1.249	<b>1.443</b>	<b>194</b>
Unibertsitatekoak ez diren testuak	2.475	2.138	2.210	2.090	<b>2.040</b>	<b>-50</b>
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	899	965	762	642	<b>787</b>	<b>145</b>
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	1.272	1.957	1.643	1.756	<b>1.580</b>	<b>-175</b>
Beste sail batzuk	1.540	1.080	1.204	1.235	<b>1.313</b>	<b>78</b>

## KATALOGOKO IZENBURUAK

Argitaletxeek katalogoan dauzkaten euskarazko izenburuen kopuruak % 10,8an gora egin du azken 5 urteetan, 2010. urtean 12.396 izenburu baldin bazituzten 2014an 13.738 izenburu izan baitituzte.

2014ko katalogoan jasotako izenburuen guztizkoaren % 83,4 EAEko argitaletxeenak dira; % 2,0 Nafarroako Foru Erkidegokoena; % 1,7, Ipar Euskal Herrikoena, eta % 13,0 beste Autonomia Erkidego batzuetakoena.

### 14. TAULA.- KATALOGOKO IZENBURUAK EUSKARAZ, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira</b>	<b>13.739</b>	<b>11.457</b>	<b>269</b>	<b>230</b>	<b>1.784</b>
% horizontala	100,0	83,4	2,0	1,7	13,0
Argitaratutako izenburuak	1.787	1.410	18	27	333
Katalogoko izenburuak / Argitaratutako izenburuak	7,7	8,1	15,1	8,5	5,4

2014an, katalogoko izenburu guztien eta euskaraz argitaratutako izenburuen arteko erlazioa 7,7 da: 8,1 izenburukoa izan zen EAEko argitaletxe pribatuetan, 15,1ekoa NFEko argitaletxeetan, 8,5ekoa Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan eta 5,4koa beste Autonomia Erkidegokoetan.

### Katalogoko izenburuak, sailen arabera

Hurrengo orrialdean katalogoan dauden euskarazko izenburuen taulak ageri dira sailen arabera.

Euskarazko katalogoan, Unibertsitatekoak ez diren testuak (guztizkoaren % 35,3) eta Haur eta Gazte literaturakoak (guztizkoaren % 31,9) nagusitzen dira.

Bien artean hizkuntza horretako katalogoko izenburu guztien % 67,2 hartzen dute.

Bi sail horiek euskarazko katalogoaren guztizkoan hartzen dutena handiagoa da beste autonomia erkidegoetan, batera hartuta % 89,1 hartzen baitute. Aitzitik, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, pisu handiagoa dute Literatura saileko izenburuek, euskaraz ekoiztutako guztizkoaren % 50 baino gehiago hartzen baitute.

**15. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK**

	<b>Guztira</b>	<b>EAE</b>	<b>NFE</b>	<b>Ipar EH</b>	<b>Beste AE batzuk</b>
<b>Guztira (balio absolutuak)</b>	<b>13.739</b>	<b>11.457</b>	<b>269</b>	<b>230</b>	<b>1.784</b>
Literatura	2.120	1.804	201	115	0
<i>Eleberria</i>	1.504	1.218	179	108	0
<i>Poesia, antzerkia</i>	275	264	4	8	0
<i>Beste literatura batzuk</i>	341	322	19	0	0
Haur eta gazte literatura	4.385	3.660	27	70	627
Unibertsitatekoak ez diren testuak	4.844	3.865	16	2	961
<i>Haur Hezkuntza</i>	754	655	0	1	99
<i>Lehen Hezkuntza</i>	1.665	1.273	0	2	390
<i>DBH</i>	1.492	1.081	0	0	411
<i>Batxilergoa</i>	383	349	0	0	35
<i>Lanbide Heziketa</i>	17	17	0	0	0
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	533	490	16	0	26
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.482	1.360	6	0	117
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	393	327	16	10	40
Beste sail batzuk	515	441	3	33	38


	<b>Guztira</b>	<b>EAE</b>	<b>NFE</b>	<b>Ipar EH</b>	<b>Beste AE batzuk</b>
<b>Guztira (ehunekoak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Literatura	15,4	15,7	74,8	50,1	0,0
<i>Eleberria</i>	10,9	10,6	66,4	46,8	0,0
<i>Poesia, antzerkia</i>	2,0	2,3	1,4	3,3	0,0
<i>Beste literatura batzuk</i>	2,5	2,8	7,0	0,0	0,0
Haur eta gazte literatura	31,9	31,9	10,1	30,5	35,2
Unibertsitatekoak ez diren testuak	35,3	33,7	6,1	1,0	53,9
<i>Haur Hezkuntza</i>	5,5	5,7	0,0	0,2	5,6
<i>Lehen Hezkuntza</i>	12,1	11,1	0,0	0,8	21,9
<i>DBH</i>	10,9	9,4	0,0	0,0	23,0
<i>Batxilergoa</i>	2,8	3,0	0,0	0,0	1,9
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0
<i>Liburuak eta material osagarriak</i>	3,9	4,3	6,1	0,0	1,5
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	10,8	11,9	2,0	0,0	6,6
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,9	2,9	5,9	4,4	2,2
Beste sail batzuk	3,7	3,9	1,1	14,1	2,2

Argialetxe pribatuen katalogoetako euskarazko izenburuen % 83,4 EAEko enpresenak ziren.

EAEko katalogoetako izenburuen ratioa zenbateko osoa baino handiagoa da sail guztietan, Unibertsitatekoak ez diren testuetan (% 79,8) izan ezik; Beste autonomia erkidegoetako argialetxeentzat % 19,8koa da.

**5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGIALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)**

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	83,4	1,9	1,7	13,0



Ondoren, hurrengo tauletan, izenburu biziak azken 5 urteetan izandako bilakaera ikus daiteke, sailen arabera, baita aurreko urtearekiko aldakuntza ere.

Sailen arabera izenburu biziak zenbateko osoan goranzko joera hautematen da azken urteetan. Aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta, % 2,4koa izan da igoera. Sailen arabera, Unibertsitatekoak ez diren testuek (% 6,9) eta Beste sail batzuetakoak (% 6,0) bizi izan dute igoerarik handienak.

**16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. 2010-2014 BILAKAERA. 2013. URTEAREKIKO ALDAKUNTZA**

Izenburu biziak	2010	2011	2012	2013	2014	Aldakuntza (%)
<b>Guztira</b>	<b>12.396</b>	<b>12.489</b>	<b>13.046</b>	<b>13.418</b>	<b>13.739</b>	<b>2,4</b>
Literatura	2.099	1.977	2.158	2.233	<b>2.120</b>	<b>-5,1</b>
Haur eta gazte literatura	3.911	3.887	3.978	4.303	<b>4.385</b>	<b>1,9</b>
Unibertsitatekoak ez diren testuak	4.765	4.694	4.639	4.530	<b>4.844</b>	<b>6,9</b>
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.099	1.098	1.455	1.466	<b>1.482</b>	<b>1,1</b>
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	264	329	403	400	<b>393</b>	<b>-1,6</b>
Beste sail batzuk	259	505	412	486	<b>515</b>	<b>6,0</b>

% bertikalak	2010	2011	2012	2013	2014	Aldea*
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
Literatura	16,9	15,8	16,5	16,7	<b>15,4</b>	<b>-1,2</b>
Haur eta gazte literatura	31,5	31,1	30,5	32,2	<b>31,9</b>	<b>-0,2</b>
Unibertsitatekoak ez diren testuak	38,5	37,6	35,6	33,6	<b>35,3</b>	<b>1,5</b>
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	8,9	8,8	11,2	10,8	<b>10,8</b>	<b>-0,1</b>
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,1	2,6	3,1	3,1	<b>2,9</b>	<b>-0,1</b>
Beste sail batzuk	2,1	4,0	3,2	3,6	<b>3,7</b>	<b>0,1</b>

\*Aldea ehunekotan

# MERKATURATZEA

## 2014KO FAKTURAZIOA

2014an, euskarazko liburuengatik fakturazioa 36.213.396 eurokoa izan zen, hau da, aurreko ekitaldian lortutakoa baino % 3,4 handiagoa. Fakturazio guztiaren % 91,0 EAEko argitaletxeen merkataritza jarduerari dagokio.

### 17. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2014AN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (milaka euro)</b>	<b>36.213</b>	<b>32.972</b>	<b>68</b>	<b>175</b>	<b>2.999</b>
% horizontala	100,0	91,0	0,2	0,5	8,3

### Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera

2014an, euskarazko liburuak saltzeagatik lortutako fakturazio osoaren % 76,5 Unibertsitatekoak ez diren testuen sailetik dator. Fakturazio osoaren gainerako % 23,5 horretatik % 15,5 Haur eta Gazte literatura sailak hartu du, eta % 8 beste sail batzuek.


2013. urtean bezala, Unibertsitatekoak ez diren testuen liburuen salmenta handiagoa izan da Beste EA batzuetan, pisu handiagoa hartu du (% 80,8); aldiz, Haur eta gazte literatura saila nagusitu egin da Ipar Euskal Herrian (% 42,0). NFEen, berriz, Literatura sailak % 41,5 hartzen du, berau da pisu handiena duen saila.

### 18. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2014AN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
<b>Guztira (milaka euro)</b>	<b>36.213</b>	<b>32.972</b>	<b>68</b>	<b>175</b>	<b>2.999</b>
Literatura	1.838	1.770	28	40	0
<i>Eleberria</i>	1.513	1.474	18	21	0
<i>Poesia, antzerkia</i>	82	72	1	9	0
<i>Beste literatura batzuk</i>	244	224	9	11	0
Haur eta gazte literatura	5.599	5.075	12	74	438
Unibertsitatekoak ez diren testuak	27.697	25.202	20	53	2.423
<i>Haur Hezkuntza</i>	4.537	4.119	3	5	410
